

I. Xedapen orokorrak

JUSTIZIA MINISTERIOA

8146

Maiatzaren 9ko 513/2005 ERREGE DEKRETUA, etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrala arautzen duen 355/2004 Errege Dekretua aldatzen duena.

Etxeko indarkeriaren biktimen babes agindua arautzen duen uztailaren 31ko 27/2003 Legeak barneraturiko Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikuluko 8. atalak, alderdiei aipaturiko babes agindu horren berri emateko betebeharrak ezartzen du eta baita epaileak, testigantza oso bidez, biktimari eta babes aginduak hartzeko eskumena duten Administrazio publikoei babes agindu horren berri emateko duen betebeharrak ere, bai babes aginduok segurtasunezkoak direnean eta bai gizarte-laguntzazkoak, laguntza juridikozkoak, osasun-laguntzazkoak, laguntza psikologikozkoak edo beste izaera batekoak direnean ere, horretarako komunikazio hauen arintasuna bermatzeko koordinazio administratiboko arauzko sistema integratu bat ezarri beharko delarik.

Martxoaren 5eko 355/2004 Errege Dekretuak etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrala arautu zuen eta koordinazio sistema bat ezarri zuen, beronen arabera epaitegi eta tribunaletako idazkariek etxeko indarkeriaren biktimentzako hartzen diren babes aginduen berri eta dagokion komunitate autonomoak izendaturiko koordinazio puntuan eginiko euron inguruko eskarien berri eman behar dutelarik, hauek biktima hauei loturiko gizarte-babesaren esparruan eskumenak dituzten zentro, unitate, organismo eta erakundeei eabazpen hauen inguruko jakinarazpena emateko kanal bakarra eratuko dutelarik.

Komunikazio telematikoen sistema bat ezartzeak eredu hau koordinazio administratibozko eredu integratuago batengatik ordezkatzeko gomendatzen du, datuen igorpenean bikoiztasuna ezabatuz eta informazio gaurkotua, arina eta egiazkoa bermatuz. Legediak koordinazio puntuei egotzen dizkien eginkizunak ikusirik, eztabaidaezina dirudi egiteko hau nabarmenki hobetuko dela erregistroan dagoen informazioa sarbide zuzena, koordinatua eta hain delikatua den informazioak gomendatzen dituen mugaketekin, ahalbidetzen baldin bada. Lagapen hau, gainera, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2.a) eta 11.2.d) artikuluek babesten dute, lehenengoa Prozedura Kriminaleko Legearen 544 hiru. artikuluko (artikulu honi uztailaren 31ko 27/2003 Legeak emaniko idazkeran) 5. eta 8. atalei lotua.

Bestalde, ekainaren 18ko 1475/2004 Errege Dekretuak (beronen bidez Justizia Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen delarik) buruturiko aldatetarako, idazkari judizialek erruztatuen eta auzi-iheslarien Erregistro zentralari zigor epai irmoen berri emateko betebeharrak oraindik indarrean egotearekin batera, ez beharrezko bihurtzen dute, bere erredundantziatik, etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralak erruztatuen eta auzi-iheslarien Erregistroari martxoaren 5eko 355/2004 Errege Dekretuko 5.2 artikulua aipatzen duen etxeko indarkeria esparruko epai irmoen berri ematea, eta kudeaketa prozesalean epaitegietan eta tribunaletan izan beharrek arintasunak, erregistroko datu-basera sarbidea zabaltzea aholkatzen dute betekizun horretarako berariaz izendatutako funtzionario batentzat (gaur egun, sarbide hau idazkari judizialak baino ez du), idazkari judizialak erregistroan erabili behar den informazioaren berri pertsonalki emateko duen betebeharrari kalterik egin barik. Esanahi berbera eman behar zaio orain arte aurreikusi ez den aukerari, alegia, datuen transmisioa kudeaketa prozesaleko ezarpenetatik zuzenean burutzeko aukerari, aukera hau teknikoki erabilgarria denean, jakina.

Hori dela eta, Justizia Ministerioaren proposamenari jarraituz eta Administrazio Publikoetako Ministroaren onarpena jaso ostean, Estatuko Kontseiluarekin bat etorritik eta Ministro Kontseiluak 2005eko maiatzaren 6ko batzarrean eginiko deliberazioaren ostean, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra. *Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrala arautzen duen martxoaren 5eko 355/2004 Errege Dekretuaren aldaketa.*

Martxoaren 5eko 355/2004 Errege Dekretua, etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentrala arautzen duena, jarraian azaldutako eran aldatzen da:

Bat. 2. artikuluko 2. atala jarraian ageri bezala idatzita geratzen da:

«2. Etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro zentralaren helburua familia prozedurez arduratzen diren ordena penaleko organo judizialei, Ministerio Fiskalari, polizia judizialari eta eskumena duten Administrazio publikoei euron eginkizun jurisdikzionalak gauzatu ahal izateko eta biktimen babesera zuzenduriko zerbitzu publikoak eman ahal izateko beharrezkoa duten informazioa ematea da.».

Bi. 5. artikuluko 2. atala ezabatzen da eta, hortaz, egungo 1. artikulua atal bakar gisa geratzen da.

Hiru. 8. artikulua jarraian ageri bezala idatzita geratzen da:

«8. artikulua. *Erregistro zentrallean dagoen informazioa sarbidea izatea.*

1. Erregistro zentrallean dagoen informaziorako sarbidea ondorengo subjektu eta xedeetara soilik mugatuko da:

a) Ordena penaleko organo judizialek, familia prozedura batez arduratzen diren ordena zibileko organo judizialek eta emakumearen kontrako indarkeriarako epaitegiek kausa penalak eta zibilak izapidetzeko behar duten informazioa sarbidea izango dute, eta baita aipaturiko biktimentzako babes neurriak hartzeko, aldatzeko, exekutatzeko eta euron segimendua egiteko behar duten informazioa ere, dagokion idazkari judizialaren bitartez edo beronek izendaturiko eta bulego judizialera atxikita dagoen funtzionarioaren bitartez. Izendapen honek ez du, inongo kasuan ere, 5. eta 6. artikuluek idazkari judizialei ezartzen dizkieten betebeharrak erantzukizunetan eraginik izango.

b) Ministerio Fiskalak izaera penaleko eta zibileko kausak izapidetzeko behar duen informazioa sarbidea izango du, eta baita aipaturiko biktimentzako babes neurriak hartzeko, aldatzeko, exekutatzeko eta euron segimendua egiteko behar duen informazioa ere, eskumena duten organo jurisdikzionaletako fiskaltzetan lan egiten duten fiskalaren bitartez.

c) Polizia judizialak Erregistro zentral honetara sarbidea duten portaeren jarraipen eta segimenduaren inguruan burutzea eskatu zaizkion jardueren garapenerako beharrezkoa duen informazioa sarbidea izateko aukera izango du, eginkizun hauek burutzen dituzten baimendun funtzionarioen bitartez.

d) Komunitate autonomoek organo jurisdikzionaletan hartutako babes neurrien, behin-behinekoen zein behin betikoen, konplimendu eraginkorra bermatzeko beharrezkoa duten informazioa sarbidea izango dute, koordinazio puntu bakoitzean izendaturiko arduradunaren bitartez, lehenengo xedapen gehigarriak adierazten duen bezala.

2. Erregistro zentralerako arduradunari dagokion baimendutako erabiltzaileen zerrenda bat burutzea, zein datutarako sarbidea duten adieraziz.

3. Erregistro zentralerako datuetarako sarbidea telematikoki gauzatuko da, identifikazio eta egiaztapen prozeduren bidez. Sarbide sisteman jasota geratu beharko dira erregistroa sarbidea izan duten erabiltzaileen nortasuna, kontsultatu dituzten datuak, sarbidearen momentua eta kontsultaren arrazoia.

4. Estatuko Administrazio Orokorra eta justizia alorrean eskumena duten komunitate autonomoek, Gardentasun Judizialaren Planaren markoaren baitan, erregistroan dauden datuen inguruko estatistikak garatu ahal izango dituzte, informazioan aipamen pertsonal oro saihestuz eta Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoak eta bere xedapen gehigarrietan ezarritakoak kontuan izanik.»

Lau. Xedapen gehigarri bakarra lehenengo xedapen gehigarri izatera pasako da eta bigarren xedapen gehigarri bat ere gehitzen da, ondoko idazkerarekin:

«Bigarren xedapen gehigarria. *Erregistro zentralera datuak automatikoki igortzea.*

Kudeaketa prozesaleko sistemen garapenak ahalbidetzen duenean, Justizia Ministerioak Erregistro zentralera igorri beharreko datuen komunikazio telematikoa kudeaketa prozesaleko sistemetatik automatikoki burutzea baimendu ahal izango du, nolana ere informazioaren konfidentzialtasuna, benetakotasuna, egiazkotasuna eta osotasuna bermatuz. Kasu hauetan, erregistroa sarbidea duten erabiltzaileen sarbideak kontsulta soslaiak izango du.»

Azken xedapen bakarra. Indarrean sartzea.

Errege dekretu hau «Estatuko Aldizkari Ofizialean» (BOE) argitaratu osteko egunean sartuko da indarrean. Madrilen, 2005eko maiatzaren 9an.

JUAN CARLOS Er.

Justizia Ministroa,
JUAN FERNANDO LÓPEZ AGUILAR